


Kristautzea eta elizaren antolamendua

Kristautzea

IV. mendean kristautasuna Erromatar Inperioko erlijio ofizial bihurtu zen. Handik aurrera, kristautzea erromanizazioari lotutako ezaugarria izan zen.

Kristautasuna hedatzeko bide nagusiak erromatar galtzadarik garrantzitsuenak izan ziren.



1. Hegoaldean (Arabian, kantabriar mendikateetatik hegoaldera, eta Nafarroan, Iruñeritik hegoaldera) eragin handiagoa zuen erromanizazioak, eta ondorioz, kristautasuna hantxe zabaldu zen azkarren, III. eta IX. mendeen artean.
2. Hegoaldean ez bezala, iparraldean (Gipuzkoa eta Bizkaiko itsasertzeko lurraldeetan, Arabako kantabriar bailaretan eta Nafarroako mendialdean), kristautasuna motelago zabaldu zen. Erromanizazioak eragin txikiagoa zuen han, orografia oso menditsua zelako eta biztanleak barreiatuta bizi zirelako. Horren guztiaren ondorioz, kristautasuna ez zen IX. eta X. mendeak arte hedatu, eta orduan antzinako kultura paganoaren lekua hartu zuen.
3. Erdi Aroan zehar, Aro Modernora igarotzeko aldia barne hartuta, antzinako kulturako zenbait alderdik bizirik jarraitu zuten, kultura kristauarekin bat eginda: Marirenganako sinesmenak, adibidez, Anbotoko damak fenomeno atmosferikoetan eragina zuela uste baitzuten garai hartan. Berez, lehen elizen arteko asko eta asko ordura arte gurtza paganoa egin izandako tokietan eraiki zituzten.

Bizitza erlijiosoaren erreforma eta dibertsifikazioa

Monasterioak garrantzi handiko kultur guneak ziren eta eragin handia zuten politikan eta ideologian.

XI. mendeko azken laurdenean erritu bisigotiko-mozarabiarra baztertu eta erromatarra nagusitu zenean, hainbat aldaketa egin zituzten liturgia-egutegian, santuen izendegian, eta abarretan. Leire eta Iratxe Clunytik iritsitako elizaren erreformaren ardatz bihurtu ziren.

XII. mendean, Clunyko Ordenaren erreforma egin zuten, eta orduantxe sortu zen Cisterko Ordena. Ordena hura Fiteroko monasterioaren bidez zabaldu zen Euskal Herrian.

XIII. mende hasieran, berriz, frantziskotarren eta domingotarren eskeko ordenak sortu ziren.

Euskal Herriko gotzain-barrutien lurralde-eskumena

XII. mendean behin betiko finkatuta gelditu zen Erdi Aroko euskal elizbarrutien mapa, zazpi gotzain-barrutitan banatua.

Egituraketa hori oso korapilatsua zen eta, XI. eta XII. mendeetan bereziki, ika-mika ugari sortu ziren gotzain-barrutien artean, bakoitzari zegozkion lurralde eskumenak zirela eta ez zirela.

Eliz-antolamenduari dagokionez, elizbarrutiak artzapez-barrutietan banatzen ziren eta barruti horiek artxidiakono-barrutietan. Halere, parrokiak zeuden eliztarrengandik gertuen eta haiek zuten eraginik handiena gizartearen ere.

